

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Emakumeak eta itsasoa. Sarrera


Emakumeen eta itsasoaren arteko harremana sakona eta modu anitzekoa izan da historian zehar. Itsaso ekonomiari dagokion esparruan emakumeek beren ahalegin eta antolakuntza ahalmenaren ekarpena egin dute mendeetan zehar. Beren lanak gizarte izaerako alor garrantzitsuak bete ditu komunitate arrantzale eta itsastarretan. Itsaso eginkizunetan emakumeen parte hartzearen garrantzia eztaba daezina izanik ere, bere ekarpena aintzat hartzean, ordea, gabezia dagoela ezin da zalantzan jarri.

Antzinatek datozen, eta batzuek oraindik ere irauten duten, mito eta sineskeria ugarik bermatzen dute emakumeen lotura itsasoarekin. Taburik zabalduenetakoa emakumeek ontzi barruan ekar zezaketen zori txarrarena zen eta, hala ere, han zeuden XVI. mendean Ameriketara bidean abiatzen ziren itsasontzietan.

Laguntzaile bezala edo gizonezkoen arropaz jantzita –beren emakume izaera ezkutatzeko– edo, pirata legez bai eta ere, ibili dira emakumeak itsasoan. Ezin da ahaztu, ez eta ere, emakumeen parte hartzea ontzigintzako negoziotan, kortsario jardunean eta arrantzaletan.

Emakumeen lana funtsezkoa izan da portuetan eta arrantzan. Portuetan batelari, zirgari eta kargaketari lana destajuz egiteaz gain, komunitate itsastarretan, etxe eta familiaren zaintza eta etxeke ekonomia batzen saiatzen ziren lan ezberdinekin: marisko lana, arrantzako arteen mantenua, arrainaren deskarga, enkantea eta salmenta, kontserba fabriketako eskulana...

Gizarte aldaketekin erronka berriak sortu dira emakumeek eragotziak zeuzkaten lan eta kirol jardueretara guztiz inkorporatzeko. Orain merkataritza nabigazioan eta armadetan daude; enpresa eta kofradien kudeaketan postu garrantzizkoetan daude eta bela, surf edo arraun lehiaketetan gogotsu hartzen dute parte.




“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Itsaslaminak, birjinak eta sorginak



Antzin antzinatik arrisku eta etsai izan da itsasoa, kondaira fantasiako eskenategi. Greziako mitologia klasikoak ura femeninoarekin lotzen zuen, elementu hau bizi eta ugalkortasun iturri jotzen baitzen. Jainkosak eta naturaren beste zenbait izpiritu, *ninfak* adibidez, uste hauen ondorio dira. Mito askok egiten dute bertan bizi diren izakiak blaitzen dituen uraren izate sentsualaren aipua. Honela sortu ziren *ozeanideak*, *nereidak* eta *ondinak*. Guzti horiek zorigaitz unetan marinelei laguntza ematen zieten emakume gazte eta ederren itxura hartzen zuten.

Mitologia klasiko grekoko itsaslaminak ez ziren hain asmo onekoak. Beren kanta melodiatsuekin, marinela erakarri eta itsaspara garraiatzen zituzten izaki seduktore eta beldurgarriak ziren. Europako iparraldeko herrialdeetan uste zen, ur izpiritu gaizkileek, emakumezko gazte irudiarekin, nabigatzaileak heriotzaraino gidatzen zituztela.

Mundu klasikoan itsaslaminak emakume eta hegazti arteko

hibrido bezala adierazten ziren. Erdi Aroan hasiko ziren arrain formako itxura hartzen eta bekatu eta haragikeriaren irudi bilakatzen.

Kristautzearen ondorioz, Venus Itsastarra edo Isis pelagikoa gisako jainkosa grekorromanoen gurraketa Stella Marisen, edo Itsasoko Izarraren, gurraketa bilakatu zen. Hau ez zen Andre Mariaren irudikatzea besterik, eta bere gainera etorri ziren tradizioz ur gaineko emakumeei zegozkien eta gizonezkoek ukatzen zitzaizkien botereak. Hala, Andre Maria itsasgizonen zaindari eta babesle kontsideratzera igaro zen.

Marinel eta arrantzaleen ongile zen Andre Mariaren irudiaren aldean, sorginak ekaitz harrotze eta hondoratzeak eragin zitzaizkien izaki gaitz egileak ziren. Kromborg (Danimarkan), XVI. mende bukaeran, hamahiru emakume sorgintzat salatuak izan ziren, eta sutara kondenatuak, Eskoziako erregearen bizitza arriskuan jarri zuten ekaitz ikaragarriak harrotzeagatik. Euskal Herrian uste berdina zegoen. 1607an María Zozaya, erreteriarra, eta beste zenbait emakume lagun, Bidarteko itsasertzean Antonio de Oquendoren flota hondoratu zuen eta 800 gizon hil ziren ekaitza abian jartzeaz salatua izan zen. María Zozaya presondegian hil zen 1610eko autofedepan jarri aurretik.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Emakumeak eta itsasontziak



Itsas singladuren historian ohiz agertzen diren protagonista bakarrak gizona bezala izanik ere, emakumeen presentzia ontzietan etengabe egon izan da. Colón, hirugarren bidaiari, 1498an, 30 emakume baino gehiagorekin iritsi zen eta berehala sortu zen migrazio fluxu femenino bat Ameriketara, hilabeteak irauten zuten bidaiak eta baldintza prekariorik.

XVI. eta XVII. mendeetan *aurreratu* horietako bi nabarmendu ziren parte hartzen zuten espediziotako buruzagi aritzeagatik: Isabel Barrero –armada espainiarreko emakume almirante bakarra– eta Mencía Calderón. Derrigorrezkoa da Catalina de Erauso donostiarra aipatzea ere, gizona jantzita abiatu zen Ameriketara soldadu legez borrokatzeko. Bere emakumetasuna ezkutatu, bai eta ere, Cabo San Vicenteko itsas guduan 1797an partu hartu zuen Ana María Soto.

XIX. mendeko mundu anglosaxoiko istorioetan ospetsuak ziren behar gorrian timoia hartu eta tripulazioen buruzagi

jarri ziren emakumeak: Mary Patten, Joan Druett eta Jennie Parker.

Emakumeak itsas merkataritzako tripulazioetan parte hartzen ere hasiak dira. 1922an Victoria Drummond britaniarra lehenbizikoz ontziratu zen itsas ingeniari bezala. 1935ean Anna Ivanova Schetinina soviatarra izan zen ontzi merkante bateko lehen kapitaina. Egun emakumeak borrokan ari dira berdintasun osoz integratzeko sektore honetan, eta beren presentzia gero eta ohikoagoa da armadetan eta bela kirolean.

Emakumeek itsasontzi eta nabigazioarekin duten harremanaren beste alderdietako bat merkataritza nabigazioan eta ontzigintza industriaren duten papera da. XVI. eta XVII. mendeetako dokumentuek bistaratzen dute emakumeen partaidetza aktiboa itsas negozioen munduan, armadore edo itsas merkataritza edo Terranovako arrantzaldietako itsasontzien jabe legez. Tomasa de Azcárate, Mariana de Rovere edo Gracia de Atocha gipuzkoarren kasuak dira ezagunak. Azken hau itsasontzigintzan ere nabarmendu zen.

XIX. mende bukaeran, 1883an, Cesárea Garbunok petrolioaren itsasontzitan garraiatzeko Pasaiaiko L. Mercader y Vda. de Londaiz konpainia sortu zuen. Pasaian, bai eta ere, Marcelina Alarcía bere enpresari ahalmena agertu zuen, XX. mende erdi aldera, itsas zabaleko arrantzako P. Ciriza y Cía. armadore etxearen barruan. Denboran hurbilago eta baxura arrantza donostiarrean armadore lanetan aritu zen Guillerma Iturriza.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Piratak eta kortsariak



Historian, emakume izen asko lotu izan dira pirateriarekin. Antzina ospetsu izan ziren Halikarnasoko erregina, Artemisa; Iliriako erregina, Teuta; Alfhild errege daniarraren alaba eta Jeanne de Belleville aristokrata bretoaia (1340). XVI. mendean Grazia O'Malley, irlandar nobleen alabaz eta Lady Killigrew eta Pretty Peg britaniarrez hitz egiten zen, eta XVII. mendean Charlotte de Berryren ibilerak kontatzen ziren. Hala ere XVIII. mendea izan zen pirateriaren urre aroa, prentsak jarraipen ugaria egin eta nobelatan jasoak ere izan ziren emakumeak agertu zirenean. Anne Bonney eta Mary Read britainiarrak dira honen adibide, Rachel Wall amerikarra bezala. Ekialdeko emakume piraten lehenbiziko aipua Ching Shihrena da, honen ibilerak XIX. mendearen lehen erdian gertatu ziren.

Euskal Herrian ez daukagu emakumezko piraten berririk, baina bai kortsario jarduneko emakume batena. Juana Larando zen, donostiar alarguna, ostatu baten jabe izateaz gain, beste sozio batzuekin

Koroaren ontzi etsaiak harrapatu eta sakeatzen ibili zen patatxe bat ere bazuen. Berak, inoiz ontziratu ez bazen ere, beti jaso zituen harrapaketatik zegozkion mozkinaren partea.

Emakume piraten historiak sakon errotzen ziren herri iruditerian eta, egon ere, egon ziren hauen errekreazio nobelatuak. Mary Readen kasua da ezagunena, Jorge Luis Borgesek eta Zoé Valdesekek errekreatu zuten honen bizitza.

Zinearen industriak ere ez zion ihes egin emakumezko piraten legendari. Jacques Tourneurek 1951n egin zuen Hollywoodeko *Emakume pirata (Anne of the Indies)* titulaturako abenturazko pelikula. Gaiari buruzko beste film ospetsua Geena Davis protagonista zuen *Moztutako buruen uhartea (Cutthroat Island)* (1995) izan zen.

Marrakzi bizidunetako serieak ere ez dira salbuespena izan emakumezko piratak agertzerakoan. *One Piece* serie japoniar arrakastatsua horren adierazgarri garbia da.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Portuko lanak: batelariak, kargaketariak eta zirgariak



Emakumezkoak portutako lanik gogorrenetan aritu ziren. Lan hauen artean nabarmenak ziren portu europarretan emakume batelariak egiten zituztenak. Ospetsuenen artean zeuden Pasaiaakoak. XVII. mendeko idazleek, Lope de Vega, Leonardo del Castillo eta Aulnoyko Kondesak emakume hauen irudi idealizatua agertu zuten karga ezberdinak garraiatzen eta, bai eta ere, pertsonak eta merkagaiak ertzetik ertzera eramaten ere. Beste zenbait eginkizunen artean itsasontzietarako lasta garraiatu eta saldu egiten zuten eta, aldian behinago, atoian ere egiten zuten, alegia belaontzi handi eta txikien erremolke lana, portuan errazago sartzeko arrauneko txalupekin.

Mareen egoera kontuan izanik, emakume hauek karga mota guztiak garraiatzen zituzten txalupa eta gabarretan. Ohikoa zuten, bai eta ere, ontzien uretaratzeetan ontzigileei laguntzea ainguratzelekura arte atoian eramanez.

Donostia eta Bilboko portuetan ohikoa zen emakume kargaketarien lana. Donostian emakumeek egindako bakailao deskarga eta manipulazio lana XVI. mendean dokumentatzen da. Bilboko portuan, 1860 inguruan, emakume kargaketariak hiru multzotakoak ziren gremioaren hierarkia barruan: transakzio komertzialetako dirua eramatea beste eginkizunik ez zutenak, itsasontzietatik lonjetara bakailaoaren garraio lana egiten zutenak eta, azkenik, mea eta hondarraren karga afanean ibiltzen zirenak. Oso neskatotatik moilatan ibiltzen ohituak, portuko langileekin ezkonduak, atsedetik gabe lan egitera eginak, kargaketariak beren eginkizuna gizonena baino lansari baxuagoarekin betetzen zuten.

Azkenik, portuko gogorrenetakoa, *zirga* lana zen. Gerrian larruzko uhal bati lotutako soken bidez ontzi mota ezberdinak lehorretik tiratzea zen lan hori. Emakumeek Europako portu eta ibai askotan egin zuten lan hau. Bilboko portuan XX. mendera arte iraun zuen emakume zirgari horien lanak, nahiz eta, aurreko mendetik, gizarte salaketaren gai izan zen.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Arrantzaren inguruan



Gogora ezin ahalako denboretatik izan da arrantza elikagaia lortzeko jarduera. Emakumeak honetan mende asko denetik aritu baziren ere, beren eginkizuna ez da beti izan lan bezala ordaindua eta ofizialki aitortua orain ez askora arte. Arrantza munduan emakumeak sareen mantenuetaz aparte, deskarga, garraio eta arrain salmenta lanetan aritu izan dira. Gainera, euren gain izaten zen familiaren zaintza eta etxeko ekonomiaren administrazioa.

XVI. eta XVII. mendeetan Donostiako hondartzetan egiten zuten lana Terranovatik iristen zen bakailaoa husten, ondoren Kontxako badia edo Urumeako hondartzetako etxoletan jaso eta manipulatzeko. Hauek emakumeek ez beste inork egiten zituzten lanak ziren, marea bakoitzaren ondoren iristen zen bakailaoarekin egiten zirenak.

“Itsasontziko andre” edo “pixonera” lana erabakigarria zen euskal portuetan. Izen ezberdinak zituzten herrien arabera, baina, oinarrian, eginkizun berdinak zituzten: sareak konpondu, arraina garraiatu portura iristen zenean, hura salmentarako prestatu eta enkantea egin. Arrain freskoaren lehorreko salmentarako ibilian joan behar izaten zuten –maiz, oin hutsik– 20 edo 30 kilometroko ibilbideak ere eginez.

Eskabetxe lantegi eta gazitze enpresetako lana emakumeek egiten zuten antzinetatik. Jarduera honek arrantzale familien hainbat urtarotako ekonomiaren prekaritatea samurtzen zuen.

Egun, garrantzizkoa da oraindik emakumezkoen eginkizuna kontserba eta gazitze industrietan. Bizirik dago oraindik, bai eta ere, sarekonpontzaile ofizio ezaguna, nahiz eta denbora berrietara egokitu den bere antolakuntza.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Itsasoko bainuak



XIX. mendeko bigarren erdian garatu zen kostako turismoak, bainuetxe ingelesetan modan jarri zen itsas bainuetan ditu bere erroak. Itsas bainuak osasunarentzat mesedegarri jotzen zituzten termalismoaren eta korrente higienista rupturisten oinordeko, Deauville, Cannes edo Niza, Frantzia, eta, Alemanian, Binz eta Sellin bezalako lekuak udaldietarako leku moderno bilakarazi zituen burgesia indartsu batek babesten zuen praktika hau. Hasiera batean Euskal Herrian Biarritz eta Donostiara mugatu zen fenomeno izaki, berehalakoan hedatu zen kostaldeko beste herrietara, Zarautz, Deba, Lekeitio, Getxo, Portugalete eta Santurtzira. Honekin herri hauetako ekonomia dinamizatu zen eta emakumeentzako beste irtenbide profesional batzuek sortu ziren.

Bainuzaleek emakume edo gizonezkoen laguntza eskatzen zuten itsasertzean ziurtasunez sartu ahal izateko. Horrela sortu zen bainulaguntzaile ogibidea. Emakume askok egin zuten lan hau euskal kostako hondartzetan zehar eta Donostian bereziki, non, sakon errotu zen. Donostiako kaiko bizilagunek egiten zuten aldi bateko lana zen.

Garai haietako garbitasun eta onestidate ideiak emakumeak hondartzan eraman beharreko janzkerarekin aski lotuak zeuden. 1848an emakumeek lepoan lotutako baieta kolore iluneko maukadun arropatza luze eta zabala janzten zuten. XIX. mendean eta XX. mende hasieran janzkerak laburtzen hasi baldin baziren ere, medikuek eta agintariek emakumezkoen bainujantziaren moralitatearen aldekoitasuna babesten zuten. Aldiz, 20. eta 30. urteetan, eguzki bainu eta ohituren lasaitzearekin, beharrezkoagoa zen gorputzak eguzkira gehiago jartzea eta horrek bainujantzien laburtzea ekarri zuen. Nahiz eta gerra ondorengo 40. eta 50. urteetako saio moralzaleak, emakume turistak moda berriak ekarri eta sartzen hasi ziren, hala nola *bikinia* zeina, laurogeiko hamarkadako *toplessa* bezala, askapen eta lorpen sozialaren irudi bilakatu zen.

“Emakumeak eta itsasoa” aldi baterako erakusketa

Untzi Museoa, Donostia, 2016.

Testuak: Olga Macías / Ilustrazioak: Elena Odriozola



Uretako kirolak



Emakumeen kirolera iristea berantiarra izan da eta kultura eta gizarte estereotipoek ezarritako langak derrigorrean gaindituz iritsi dira. XX. mendeko 20. eta 30. urteetan aurrerapen handia egin zen Alice Milliaten gisako emakumeen ahalegin aintzindariari esker.

Urte horietan emakumezkoen bela kirola nabarmen hazi zen nahiz eta goi mailako lehiaketetan beranduago sartu. 70eko urteetan estropada ozeanikoetan parte hartzen hasi ziren nahiz eta talde osoki femeninoak ez ziren 90eko urteak arte.

1920ko hamarkadan inkorporatu zen emakumea arraun olinpikora. Euskal Herrian emakumezkoen arrauna, banku finkoan, 1962an hasten da Pasai Donibanen batelen lehiaketa antolatuz. Pasaiaiko bateleren urrats historikoari jarraituz egun oraindik ere ospatzen da lehiaketa hori.

Traineruen lehenbiziko estropada femeninoa Hondarribian izan zen 2005 urtean, eta *Cabo da Cruz*-eko emakume arraunlariek irabazi zuten. 2008an hartu zuten lehiaketek emakumezkoen arraun denboraldi oso baten irudia: Txingudiko Ikurrina, Gipuzkoako Txapelketa, Euskadikoa eta, lehenbizikoz, Donostiako Kontxako Bandera, *Galizia* traineruak irabazi zuena. Egun Kontxako Bandera donostiarra da –1879tik ospatzen den gizonezkoena bezala– urteko estropadarik preziatuena. 2009az geroztik emakumezkoen Kantaurikoko arraun liga ere ospatzen da (*Euskotren Liga*) azken urteotako talde gipuzkoarren

nagusigoarekin: Getaria-Tolosa (2011), Zumaia (2012-2013) eta San Juan (2014-2015).

Azken bi hamarkedetan emakumeen presentzia asko ugartu da itsasoko kirol mota guztietan: bela, igeriketa, surf, SUP, kayak, etab.